DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.eus

Jantoki eta Haurtzaindegiari buruz:

2020-2021 Ikasturtea

Lehenik eta behin, komunikazioa hasi nahi dugu, barkamena eskatzeko bidalketa atzeratzeagatik. Gauza asko hartu behar izan dira kontuan, eta, beraz, antolaketa uste baino konplexuagoa izan da, haurrei eskaintzen zaien zerbitzua eta arreta ahalik eta hobekien planifikatuta egotea nahi izan baita une oro. Hartutako erabaki guztiak bilakaeraren eta eguneroko esperientziaren arabera alda daitezke. Eskerrik asko zuen pazientziagatik.

Matrikulazioa

Jantoki eta Haurtzaindegi zerbitzuetan altan emateko epea amaitu egin da.

Gaurtik aurrera, **irailak 4**, eta datorren **irailaren 20arte modifikazioak** egin daitezke:
Bajak edota egun aldaketak, baina ez dira alta gehiago onartuko. Antolaketa itxita dago.

Neurriak

Segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko dira jantokiko eta haurtzaindegiko tarte guztian.

1. Zuzendaritzak markatu dituen talde egonkorrak une oro mantenduko dira.

2. Talde egonkor bakoitzak bere monitorea izango du, beti berdina.
Berarekin mugituko dira umeak jantokian, zein haurtzaindegian eta patioko tartean.

3. Patioko espazioak bereizita egongo dira.
Gimnasioa, patio handia, 1. solairuko patioa, 2. solairukoa, kiroladegia, talde egonkorren banaketa bermatzeko.

4. Segurtasun distantziak mantenduko dira.
Umeak batzeko, jantokira sartzeko eta ateratzeko, jantoki barruan, patioan, haurtzaindegian…denetan, segurtasun distantziak, talde egonkorrak eta neurri guztiak beteko dira.

5. Esku garbiketa sartzean eta ateratzean egingo da.
Gel hidroalkoholikoarekin eta, HHkoentzat, ura eta jaboaiarekin.

6. Sintomak dituzten umeak medikuaren gelara eramango ditugu.
Maskara denbora guztian erabiliz, eta gurasoei deituko zaie lehenbaitlehen. Gainera, Zuzendaritza eta Jantoki Batzordeari pasatuko zaio abisua.

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.eus

Jantokiko Ordutegiak

Jantoki barruan bakoitzak bere tokia izango du, beti berdina, talde egonkorrak mantenduz baita distantziak ere.

Taldeek hurrengo ordutegia izango dute, talde egonkorretan antolatuta:

· **HH**

HH2: **12:30** *(beren gelan)*
HH3: **12:30 - 13:20** *(monitoreak gelara igoko dira jantokikorako umeak jasotzeko)*
HH4: **12:40 - 13:20** *(monitoreak gelara igoko dira jantokikorako umeak jasotzeko)*
HH5: **12:50 - 13:20** *(monitoreak gelara igoko dira jantokikorako umeak jasotzeko)*

· **LH**

LH1 - LH2 eta LH3: **13:35 - 14:10**
LH4 - LH5 eta LH6: **14:25 - 14:55**

· **DBH**

DBH1 eta DBH2: **15:10** *(Jantoki-zerbitzua irailaren 8tik aurrera hasiko da talde horrentzat.)*
DBH3 eta DBH4: **15:10** *(Jantoki-zerbitzua irailaren 15etik aurrera hasiko da talde horrentzat.)*

Bazkaldu aurretik eta ondoren izango dituzten ordu tarte libreetan egokitu zaien espazioan egongo da talde bakoitza, beren monitorearekin.

Jantokira Ekartzekoak

1. Maskara.
Maskarak jantokian jesarrita dauden arte ipinita izan beharko dituzte. Ondorioz, horren gaineko ardura umearena izango da.

2. Gerriko poltsa bat.
Gerriko poltsa bat eramatea eskatzen dugu. Ipinitako maskara gordetzeko, barruan ordezko bat dutela eta jantokitik ateratzean berriro ipinita erraztasunez jolastu ahal izateko.

Behar direnerako maskarak izango dituzte jantokian ere.
Maskarak apurtu, galdu, zikindu... halakoetan jantokiko maskarak hartu ahal izango dituzte, baina egoki ikusten dugu, bakoitzak ordezko bat izatea eta horien ardura izatea.

****HH osorako amantala ekartzea beharrezkoa. HH2 eta HH3n adur zapia ere.***

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.eus

Haurtzaindegiko Zerbitzua

Ikasturtearen hasierako lehen 2 egunetan, haurtzaindegiko arduraduna ikastetxeko irakasleekin koordinatuko da haurrak geletara eramateko, lehen egun horietako ordutegi bereziaren arabera.

Ordutegia:

Kurtsoan zehar: **08:00 - 09:30** artekoa da.
Intentsiboan: **08:00 - 09:00** artekoa da.

Honetan ere bai talde egonkor berdinak mantenduko dira, baita begirale berdina ere.
Sarrera Idazkaritzatik izango da. Pertsona bat arduratuko da iristen direnean haurrak jasotzeaz.

Horrela egongo dira banatuta:

- **HH2**

Lan gela eta Iruñako irteera artean dagoen espazio irekian egongo dira.

- **HH3-HH4 eta HH5**

HH2ko gelen aurrean dagoen espazio irekian, hesiekin banatuta eta bakoitza bere begiralearekin. Behar izanez gero, kolunpioak dauden patio zatia ere erabili ahalko litzateke.

- **LH1-LH2 eta LH3**

Jantokian. Hemen bi talde egonkor batzen dira, baina espazioa zabala da.
LH1 eta LH2 taldea patiora ematen duen gunean egongo litzateke eta LH3 taldea sukaldera ematen duen espazioan.

- **LH4-LH5 eta LH6**

Bigarren solairuko patioa erabiliko da.

Jasoerak

Umeak Ikastolak markatu dituen guneetan, goizetan utzi behar izan ditugun toki berean, jasoko ditugu modu eskalonatu batean. Ikastolan pilaketak ahalik eta gehien ekiditu beharko genituzke:

Irteeren ordutegia:

- **HH**

HH3-HH4 eta HH5: **14:45**

- **LH**

LH1 - LH2 eta LH3: **15:00**
LH4 - LH5 eta LH6: **15:15**

** ***Ez da egongo 13:15ean jantokian geratzen diren umeak jasotzeko aukera.*** Momentu honetan ez da bideragarria.

Ikastolak markatutako guneak kontsultatu: **hemen.**

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.eus

Aldaketak: Hartu behar izan diren erabakiak.

Ezohiko zerbitzua eskainiko dugu eta konpromezu handia eskatzen diegu familia guztiei.
Horren ondorioz hainbat neurri hartu ditugu, eta beste batzuk aztertzen ari dira:

- **Ez dira eguneko inskripziorik onartuko.**
Antolaketa zaila da; neurriak, tokiak, taldeak… ezingo genituzke bermatuko.

- **Ez dira itzulketarik egingo.**
Aurten defizitarioa izango da. Konfinamendurik helduko balira positibo baten ondorioz, kasuak aztertuko ziren.

- **Kuotak aztertuko dira.**
Menua garestituko da ume gutxiago daudelako, neurriak bermatzeko gastua egin beharko da.

--

Mila esker zuen laguntza eta pazientziagatik.

Eskolaz kanpokoei buruz:

2020-2021 Ikasturtea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gomendioei jarraituz, eta dagoen egoera ikusita, eskolaz kanpoko ekintzak, bai eguerdikoak zein arratsaldekoak, oraingoz ez eskaintzea erabaki da.

Informazio gehiago izan ahala, jakinaraziko dizuegu.

--

Guraso Elkartea
www.deustukoikastola.eus